

Xuarben aurkitutako testuak (II)

Orreaga Ibarra Murillo

Artikulu honetan dakargun lana aurrekoaren jarraipena da eta, gure helburua da Xuarben aurkituriko testu batzuen azterketa burutzea. Horrela, aurrekoan genioen bezala, Erroibarko edo Esteribarko testuak izan daitezkeen batzuk ekartzen ditugu hona.

Horrela genioen aurreko artikuluan:

“Testuak xeheki aztertu ondoren, gure iduriz, gutxienez, bi egile ezberdin daude. Bata Ultzamako sermoiak idatzi zituena, eta bestea, Erroibarkoen egilea. Horrela, Satrustegik (1995) urtean aurkezturiko bat: *Cum intraret Jesus in Domun* izenburuarekin datorrena –eta horregatik, ez dugu berriz hemen ekarriko–, eta, beste artikuluan batean aztertuko dugun bat, izena duena *Et sic in Sion firmatua...*, egile berberak eginak direla uste dugu eta Erroibarkoak ematen dute. Grafia ikusirik eta beheko oharren bidez, hauxe atzeman baitaiteke”.

Zatiketa hau, honenbestez, grafian oinarriturik egin dugu eta baita idazteko moduan ere. Horrela bada, gure ustetan, sermoi batzuk egile batek egin ditu, alegia, Zarauzko misiolari honek, *Jose de Querezazuk* eta, gainerakoak On Basilio Goñi herriko apaiza zenak eta horiek, Ultzamakoak ditugu.

Hemendik aurrera *Et sic in Sion firmatua* testuari, alegia, hemen dakargunari, 1. Testua deituko diogu, eta Satrusteguik argitaratutakoari (1995) *Cum intraret Jesus in Domun*, 2. testua paratuko diogu. Era berean, adibidearen ondoan parentesi artean agertzen den lehen zenbakiak testua zein den adieraziko du, eta bigarrenak zein zatiedo pasarte.

Gerta liteke gu oker egotea eta sermoi hauek ez izatea ibar hortakoak. Nolanahi dela ere, ez dut uste ausardia denik testu hauek Erroibarko euskaraz idatzirik daudela esatea. Anitzetan gertatzen zenez, familiaz edo adiskidantzaz izkribu hauek eskuz esku pasatzen ziren, eta predikari batek baino gehiagok erabil zezaketen leku ezberdinetan. Hori gertatzen zen aurreko predikuekin, Xuarbekoak (Ultzama) bazi- ren ere, horietako bat Larraosoañan (Esteribar) predikatzea zen. Gisa berean, gertatzen da Goñerrin aurkitutako testuotan, Ondarrak argiki adierazten duenez (cf.

Ondarra 1996: 648-9). Nolanahi dela ere, guk aztertzeari ekingo diegu eta horrela, ezaugarri garrantzitsuenak nabarmenduko ditugu.

Arestian genioenez, gure ustez, Erroibar edo Esteribarko euskararen ezaugarriak islatzen dituzte testu hauek. Zehatzago esanda, Satrustegik “Euskal testu zaharrak” liburuan Erron aurkitu zituenen testu horien antzekoak dira hauek (ik. Ibarra 1997), edo behintzat ezaugarri asko amankomunean dituzte batzuek eta besteok.

Lan honetan ezaugarri nabarmenenak islatuko ditugu.

0. Grafia

Lehenik esan behar dugu, testua idatzi den bezala transkribatu dela, erakusleak ere ez dira bereizi, nahiz batzuetan elkarturik agertzen diren, adib: *lancebetan*. Ohar pare bat eginen dugu testu hauetako grafiei buruz:

Afrikatuen sailan <z> soinua ordezkatzeko <c> grafema dugu aditz nominalizazioetan eta beste kasu batzuetan: *Apoderacera* (1.1.), *galceco* (1.1), *permiticen* (1.2), *aiberce*, *derrotacera* (1.2), *pintacea*, *billacea*, *guardacen* (2.2), *Eriocac* (2.2), *berce bacuc* (2.2).

2. testuan, ordea, <z> grafia dugu soinu afrikari hau ordezkatzeko: *cizaionean*, *cizaizquio* (2.2), *gorpuzaren* (2.2).

Hala ere, 2. Testuan <c> grafemak frikaria ordezkatzeko du: *cerengatic* (2.2), *vicia*, *galdu cute* (2.2), *gucia* (2.2). Eta *Ts*-ren ordezk <s> dugu: *eracusi cigu* (1.7), *aberasac* (2.5).

Grafiarekin segituz, <v> erabiltzen da erdal jatorrizko hitzetan eta baita bestelakoetan ere: *festividadeain*, *vagoa*, *favore*, *vacequite* (1.1), *brevequi* (2.1), *gave* (2.2).

Ohikoa denez, testu zaharretan <que > grafema *k*-ren ordezk erabiltzen da: *cer equin*, *daiteque* (2.4), *exqueroz* (2.3), *dabilaquela* (2.6), *Cofradiquide*, *iteaiqui* (1.9).

Azkenik, gehienetan <h> grafema erabiltzen da erdal maileguetan: *honratu* (1.10), *horrible* (1.4), *heregen* (1.6), *honra* (1.8). <Th> ere ager daiteke: *catholicoac* (2.2).

1. Fonetika-fonologia

Fonetika-fonologia aztertzeari ekingo diegu lehenik:

1.1. Hurbileko bokal asimilazio fenomenorik ez da orokorrean islatzen; gaurko joera bai Ultzaman eta baita Erroibar eta Esteribarren ere oso ugaria da, nahiz erabat sistematikoa ere ez den.

Hona 1. testuko adibide batzuk: *gucia*, *asistenzia*, *soberbia*, *indulgencia*, *guisa*, *informatuac*, *milla*, *becatuac*, *plenaria*, *gauza*, *galdua*, *eta topatua*, *azotatua*, *coronatua* *eta crucificatua*, *sanduac*, *beren buruac* (1. T) eta hona 2. testukoak: *gorpuzaren* (2.2), *adornua* (2.2), *andia* (2.2), *guciac* (2.2). Bokal erdiaren ondoan ere *cz* dago fenomeno hau: *garaya* (1.11), *jayac* (1.4, 2.2).

Baina, bistan denez salbuespenak badira: *lizunqueriec*, *sanduac* eta, honez gain, modu sistematikoan *dirv* (1. T) agertzen da.

Bokal asimilazio adibide bat hauxe da: *aingiriak* (1.7).

1.2. Goi-nafarreraz ohikoa denez, gaztelaniazko *-ón* duten maileguez *-one* bukaera gorde ohi dute: *unionea* (1.10), *pasionequi* (1.10). Era berean, *-ción* bukaerakoek

gauza bera egiten dute: *intercesionea* (1.2), *aflicionetan* (1.9), *unionea* (1.9), *acionen* (1.10) baina, ez da erabat sistematikoa joera hau, *-zioa* duten bukaerak ere hauek bezain ugari dira: *bisitacioa* (1.7), *protectioaren* (1.2), *revelacioa* (1.5), *Commemoracioa* (1.5), *salutacioa* (1.6), *bisitacioa* (1.7) baititugu.

1.3. Gaztelaniazko bokalen arteko *-n-* kontsonantea galtzen da, alegia, *cristiano* > *kristio* da: *Cristioen Armadan* (1.2), *ya castigaceco Cristioen vecatuac* (1.2), *arrituic Crisroac* (1.2).

1.4. Herskarien txandaketei dagokienez, *glb-*ren arteko txandaketa islatzen da “iragazi” (= irabazi) hitzean, horrela agertzen da sistematikoki: *Cristioec isasoan iragaci duten batallaic celebren gau* (1.2), *eta erioceco orduan iragazten tuztenengatic* (1.11), *iragazi dezaque iru indulgencia plenaria* (1.8). *iragazten dute Indulgencia plenaria bat* (1.8). Era berean, *-g-* nagusitzen da *Aguztu* hitzean: *Aguztuco egunaz landara* (2.5). Jakina denez, herskari ahostunak gal daitezke bokalen artean doazenean aditz laburdurak sortuz: *nola naute* (1.10), *cusun gucia* (= ikusi duen guzia) (1.2).

1.5. Ekialdeko euskalkietan eta zaraitzueraz, aezkeraz eta goinafarrera osoan *e-*ren paragogearen adibideak arruntak dira: *perjudiciala* (1.11), *Oficiala* (1.4), *espirituale* (1.10), *mortale* (2.4), *beniale* (2.3), *señalea* (1.4), *Generalec* (1.4).

1.6. Errotazismoari dagokionez, goi-nafarrera osoan ohikoa denez, *-rtz-* taldea nagusitzen da bi testuotan: *ainberce* (1.11), *horzgarrenac* (1.5), *erraten dudana* (2.7).

1.7. Igurzkarien sailan grafia desberdinak ditugu, ohikoa denez, gisa honetako testuetan. Alde batetik <s> grafema, igurzkari sabaikoaren ordezkapena izan daitekeena: *sai ljayac*, *sarri cire* (1.4), baina lerro berean txandakatze adibideak ditugu eta. *say arrasetan* eta *jayac* aurkitzen ditugu txandaketan. Gero, bestaldetik, <j> erabiltzen da belareen kasuetan, hala nola *Embajada* (1.8), *bentajaik gabe* (1.4), baina, baita euskal jatorrizko hitzekin ere: *jarri cire* (1.4) eta *joateaiquin*, *jai egunetan*, *Jangoicoaren* (1.7). Dirudienez, garai horietan ere belare gisa ahoskatuko ziren lexema hauek. Gaur, ordea, *joan* belare bezala ahoskatzen da Erroibarren, baina *jarri* ez, igurzkari sabaikoa da. Baina, <x> grafema ere erabiltzen da: *exercitacen dugu* (1.8), *exemplo* (1.11). Azkenik, soinu belarea ordezkatzeko <g> grafema ager daiteke: *protegmentua*, *peregiceco* (1.7).

1.8. Herskari + herskari taldeak. Jakina denez, euskaldunek bi herskari elkarren jarraian ahoskatzen dutenenan, *kt* taldea esaterako, soiltzeko joera izaten dute, eta koda posizioan desagertu ohi da. Horrelakoak dira idatzitako adibide hauek ere: *protectioaren azpian* (1.2), *bitoria* (1.4), *culto perfetu bat* (1.7), *zure acionen desonestidatea* (1.10), *intercesionea* (1.3).

1.9. Sinkopa egiteko joera, jakina denez, goinafarrera osoan gertatzen da, horrela ditugu *orbat* (1.8), *verla* (1.4), *batre* (1.4) adibideak. Goinafarreraz ohikoa den joera islatzen da hemen ere, baina, esan behar da egun bizirik irauten badu ere bilakabide hau ez dela hitz hauetan guztietan betetzen, *batre* erabiltzen da, baina **verla* eta **orbat* ez.

1.10. Palatalizazioa. *l-*ren ondorengo palatalizazioa gertatzen da batzuetan: *egun milla* (1.6), *illic* (1.2), *billatu* (2.2). Baina, palatalizaziorik gabeko adibideak badira: *serbilac* (2.4), *milagrosoa* (1.4), *ilundu* (1.4), *zuecila* (1.4), *Martirilugioac* (1.5), *ilen*, *Izo-*

zilan (1.8). Gaur egun Erroibarko ohiko forma *mile* da, *esker mile* erraten da. Testu honetan, ordea, forma sabaikaria agertzen da.

Era berean, gaztelaniatiko maileguk gordetzen dute forma sabaikariak: *orgulloz* (1.1), *batalla* (1.2), *Lastallain* (1.5), *Artilleriain* (1.4).

1.11. Azkenik aipatu behar da Erroibarko gaurko hizkeran suertatzen diren metatesiak aditz nagusia eta laguntzailea elakrtzerakoan, esaterako, *-teunte* gisakoak, ez dira testu hauetan islatzen. Horrela, *Autore guienec erraten dute* (1.3) forma osotuak ateratzen zaizkigu.

2. Izen morfologia

Deklinabide kasuak aztertuko ditugu lehenik:

2.1. Kasu ergatiboaren pluralean, *-ek* dugu kasu gehienetan:

Cristioec isasoan iragaci duten batallaic celebren gau (1.2); *vear aituco dituela, ainberce anima justoec, eta sanduec* (1.10); *Cristioec isasoan iragaci duten; Cofradiquide asistitu eztezaquetenec, naiz Turcoec sumatuic ere* (1.9); *Turcoec orgulloz veteric Cristioen contra egunoro conseguicen cituzten vitoriequi* (1.2); *ya Turcoec zeucatela Cristiandade gucia* (1.2); *Ain conceptu vagoa ceucate turcoec* (1.3); *ortan Cristioec Turcoen contra alcanzatu zuten Bitoria. Gure Generalec il zute Generala* (1.4), *Autore guienec erraten dute* (1.3), *Oguei eta amar milla Turcoec galdu cituzte biciac* (1.4)

Baina, salbuespen kasuren bat ere badago, eta hauetan, *-ak* dugu: *Arrituic Cristioac, consideratu zute* (1.2).

Gaur egun, Erroibarren eta Esteribarren, nahiz eta joera hauxe bera den, txandaketa adibideak ugariagoak direla esango genuke.

2.2. Gaur egun, genitibo singularrean *-ain* bukaera nagusitzen da Erroibarko eta Esteribarko eremuetan, ohikoa denez. Esan bezala, hau da eremu honetako bereizgarria, hain zuzen ere ezaugarri honetan aldentzen da Ultzamako gainerako testuetatik. Testu hauetan joera hauxe betetzen da: *Aita sanduain Generalac* (1.1), *amain intercesiones* (1.3), *capillain bisitacera* (1.8), *artilleriain que guciac* (1.4), *poderosoain medioz* (1.1), *Maria Smaindaco* (1.8), *cristiandadeain galceco* (1.1), *festividadeain motivoa* (1.1) *JesuCristoin oñetan imploracen* (1.4), *Ama santissimain intercesiones* (1.4), *cein baita Cristiandadeain, eta mundu guciain Capitala edo burua* (1.1).

Baina, bi testuotan badira genitiboaren forma osoa erakusten dituzten kasu bakan batzuk: *protecioaren azpian* (1.2), *amparoaren azpian* (1.2), *Jangoicoaren Ama Santissima* (1.6) *Jangoicoaren Amaingana* (1.9). Era berean, guk deituriko 2. testuan forma osotuak aurkitzen ditugu: *gorpuzarequin eta arimarequin* (2.1), *misearen neurria* (2.1), *gorpuzaren sustentua* (2.2.), *Jangoicoaren gracia* (2.2), *Jangoicoaren Leguesco* (2.3).

Erroibarko lehen aztertutako beste testuetan (Ibarra 1997: 273), ordea, forma osotuak eta *-ain-ek* bukaurikoak genituen, hauek bezelaxe. Arrazoi hauek direla eta, testu hauek hemengotzat jotzen ditugu, nahiz, bistan denez, forma laburtu hauek ez diren beti islatzen idatzitako formatan.

Hain zuzen ere ezaugarri honek markatzen du diferentzia goi-nafarrerazko bi hizkera hauen artean, alegia, Ultzamakoetan eta Erroibarkoetan artean. Horrela, ultzameraz idatzitako bi dotrinetan ez zen bukaera hau erabiltzen genitiboarendako,

hauen ordez, *-aren* > *an* eta *en* > *n* bilakabidea suertatzen zen eta, *Evan umeac, humian limbua* eta antzekoak nagusitzen ziren (cf. Ibarra 1992: 928).

Berebat gertatzen da Xuarbeoak diren gainerako testuekin, horietan ez dago, ez genitiboan, ezta sozietiboan ere *-aikin*, *-ain* bukaerarik (Ik. Ibarra 1999: 90, 91).

2.3. Sozietibo singularrean, gaur egungo erabilerari jarraikiz, *-aiki* morfema nagusitzen da 1. testuan: *munduaiqui eta araguiaqui* (1.10), *onequi, iteaiqui* (1.8), *bisitaceaiqui* (1.8), *comeceaiqui* (1.8). Argi bereizten da pluraletik, *-aiki* dagoelako singularrean eta *-eki* plurallean: *Demonioaiqui eta araguiaqui eta cere pasionequi* (1.10).

Gainerakoak *-ki*-rekin osatzen dira: *Gloria andiaiqui* (1.7), *contentu andiaiqui* (1.4), *Ceruetara animaiqui, ceñetan bioza joateaiqui* (1.7), *eta emateaiqui* (1.7), *confesaceaiqui eta comeceaiqui* (1.8), *vitoria continuequi* (1.2), *vitoriequi* (1.1), *pensamentuaiqui* (1.2), *Ceruco asistenciaiqui, esfuerso andiqui* (1.3).

Erroko beste testu zaharretan ere *-ki* morfema nagusitzen da, hala ere, testu hauetan, behin *-kin* formaren kasu bakan bat eriden dugu: *Armada guciac arequin* (1.2).

2.4. Partitiboan *-ric* morfema da erabiltzen dena, eta, kasu batean, *gabe*-ri erantsita *-tarik* forma agertzen da: *sartu gabetaric cofradia santu ontan* (1.10), *eta casic batre bentajaic gabe* (1.4). Honezaz gain, morfema hau erabiltzen da superlatiboa egiteko: *proguric andiena* (1.6).

2.5. Destinatiboan *-dako* da ohiko morfema: *Maria Santissimaindaco* (1.8), *arimarendaco Jaiac* (2.2). *-Tako* ere dugu, baina, destinatibo funtzioarekin agertzen da: *bel dur naiç burlataco artu dituciela* (2.7).

Datiboan, *-ri* agertzen da *bat* edo *zuek*-i lagunduz: *pintore bateri* (2.1), *zueri escatucoco diciela* (2.6).

2.6. Kasu instrumentalean bi grafiak agertzen dira txandaketan; alde batetik kontsonante apikaria, gaur erabiltzen dena, eta bestaldetik, kasu bakar batean < z > aurkitu dugu.

Eta jabetu cire egun eta oguei eta amar uncis (1.4), *terrores veteic* (1.2), *plazas* (1.2), *gucias* (1.2), *Italia gucias jabececo* (1.2), *Turcoac Belgradoco plazas 1522 Rodaco Isaso costas* (1.2), *Maria amain intercesiones* (1.2).

Landara posposizioarekin instrumentala erabiltzen da: *Jangoicoas landara* (1.3), *Jesucristos landara* (1.9), *Aguztuco egunaz landara* (2.5). Ohar bedi, bidenabar posposizio hau ez dela gaurko hizketa arruntean erabiltzen.

2.7. Lekuzko kasuetan, inesiboan, bizidunetan *baitan* erabili ordez *bayetan* agertzen da idatzirik: *jaquitea maria Smainen bayetan* (1.9). Kasu ablatiboan bizidunekin denean *-ganik* morfema erabiltzen da: *errecevitu zuten vandera Aita sanduainganic* (1.4), eta adlatiboan ere *-gana*: *Obispo Jaunarengana* (2.4).

Bestaldetik, orain adberbioarekin doanean, *-danik* morfema nagusitzen da: *oray-danic* (1.11). Ablatiboa erabiltzen da bi elementuren arteko ezberdintasuna markatzeko: *bata berceainganic* (1.4). Azkenik, *-taik* da plurallean agertzen den forma: *nere christio fielaç asten zaratela oñetaic* (2.2.)

2.8. Erakusleak diren bezainbatean, Erroibarren eta Esteribarren gaurko erakusleek *g-* protetikoa eramateko joera dute. Hartaz, 1. testuan *gau*, *gori...* izanen ditugu maizenik, nahiz joera hau txandaketaz betetzen den egungo burutzapenetan bezala: *batalaiaic celebren gau* (1.2), *perjudiciale goyec* (1.10), *misericiordiosa gau* (1.10), *Reyna Soberana gonec* (1.11), *sandu gau* (1.9), *misericiordia gau* (1.6), *circustancia gonec* (1.4), *Bitoria gau cela medio* (1.4). *Reyna Soberana gonendaco* (1.5), *admirable gonon frutua* (1.4). *Cofradia sandu gonon pribilegioric* (1.10). 2. Testuan *g-* gabeko adibideak daude: *mundu ontan* (2.7), *mundu ontaco vicia* (2.2), *Criazaleau* (2.1).

Esan bezala, salbuespenak ere ugari dira, bereziki lehen graduko erakusleekin: *sandu onen eta cofradia onen* (1.6), *izan eder onen bisitaiqui* (1.9), *onen Imagina* (1.4), *AmaSma onen protegimentu* (1.5).

Xuarben aurkitutako beste testuetan, ordea, txandaketa zegoen, alegia, *g-* > Ø bilakabidea hasia zegoen. Gaurko hizketan ere txandakatzea ugaria da, baina, nolana nahi dela ere, bereziki izenorde hauetan ikusten da testu hauen jatorria, alegia, ultzameratik aldentzen dituzten ezaugarriak erakusten dituzte honakook. Izan ere, Ultzaman ez da horrelakorik gertatzen eta gaur egun ez dago erakusle protetikorik. Honenbestez, bi aukera daude: edo lehenago hedatua zegoen honcraino fenomeno hau, edo hau da Ultzamakoak ez direlako froga argienetariko bat.

Bestaldetik, *ebec* (1.4. 1.10) erakusle plurala agertzen zaigu behin baino gehiagotan; hain zuzen ere, hauxe da egun erabiltzen den forma.

Zerbait izenordaina determinatzaile gisa erabiltzen da izen bati lagunduz. Goinafarrera ipar zein hegoaldean ohikoa denez, *zerbait* izenaren aurretik ager daiteke: *Cerbait necesidad* (2.4).

Izenordain indartuen sailan, pluraleko 1.pertsonarena *gueren* forma da, Xuarbeko beste testuetan bezala: *sacramentaturic arquicen den gueren Criazaleau* (2.1), *edo pinta- cea gueren arimar* (2.2), *billacea gueren izerdie* (2.2).

3.pertsonako izenordaina *arren* da, goinafarrera gehienez bezala: *ya peleaceo JesuCristoin onetan imploracen, edo escacen arren asistencia, oray arren poderea Ceruan izanen da chiquiagocoa?* (1.9), *gutaz arren asistencia eta misericordia* (1.10).

Azter ditzagun beste posposizio batzuk: *artio* posposizio ohikoa da goinafarrera osoan: *oray artio* (1.10). Era berean, *bizkitartean* forma dugu: *Vizquitartean zueci bi Armadac bata berceaingana urbildus* (1.4). Aipa dezagun azkenik, eremu honetako egungo forma *biztertioan* dela.

2.10. Konparatiboa egiteko, goi- nafarrera osoan ohikoa denez, *-ago* morfemari genitiboaren *-ko* morfema eransten zaio: *ferbore andiagocoiqui* (1.4), *lazquiz chiquiagocoa* (1.2), *agradableagocoric* (1.7).

2.11. *Lazki* adizlagunak graduatzaile funtzioa du: *Ce lazquiz chiquiagocoa Cristioen Armada* (1.2). Goi-nafarreraz ohikoa denez, *arras* eta *anitz* ere, *oso*-ren kideak dira: *guelditu zire arras admiraturic* (1.3), eta *anitz* ere, izenaren aurretik jar daiteke: *aniz becatari* (1.6), *aniz indulgencia plenaria eta particulare, aniz errosarioa* (1.8), *aniz christioc esperimentatu dituten castigo visibleac* (2.7).

Nihor tankerako adberbioek ekialdeko, goinafarrerazko eta iparraldeko hizkerekin lotzen gaituzte. Guk testu hauetan sail honetakoak aurkitu ditugu: *niolat*, *nioiz*: *eta ezuquete esperatu niolat ere* (1.2), *nioiz ez* (2.2).

3. Aditz morfologia

Aditzarekin hasiko gara oraingoan:

3.1. Nor-nori aditzean *-ko-* morfema agertzen da: *joan cizacolaic* (1.8), *asi cizai-cote* (1.4), *ceren aparecitu cizaicon* (1.6). Jakina denez, goinafarrera hegoaldekoan ohikoak dira *zekio* motako aditzak Nor-Nori aditz-laguntzaileetan. Egun, honelakoak aurki daitezke Iragin eta Erroibarren, horrela, *gustatzen zekio* esaten da usuenik; idatzitako beste hauek, ordea, *-tza-* erroa dute eta baita datiboaren *-ko-* morfema ere.

3.2. Jakina denez, goinafarreraz eta aezkerazko iraganaldiko aditzek badute joera azkeneko *-n-*a galtzeko. Horrela baditugu adibide batzuk: *izan ce* (1.1), *sinistatu zue* (1.5), *jarri cire* (1.4), *ceucate* (1.1), *cemate* (1.4) baina *-n-*dunak ere baditugu: *egon cen*. Dena den, gaur hain ohikoa den joera ez zen era bat betetzen lehenago. Aldiz, Erroko● testu zaharretan ez zen galera hori hain modu sistematikoan gertatzen, gure ustez, urte hauetan nabarmendu den joera izan da hau. Baina gerta daiteke, eta ziu-rrenik hori izango da, idazlearen arabera gertatzea, eta idazle batzuek islatzea eta beste batzuek ez, gaurko hiztunekin gertatzen den bezala.

Bide batez azal dezagun morfema honen hedapena: goinafarrera gehienez *-n* aurkitzen dugu ia salbuespenik gabe Gulibarren, Txulapainen, Ezkabarten, Odietan, Olaiabarren, Anuen eta iparreko Esteribarko hizkeretan. *-n-*rik gabeak dira Esteribarko alderdi bat eta Erroibar, Artzibarren ere *-n-*rik gabeko adizkiak erabiltzen ziren, Aezkoan bezala.

Bestaldetik, morfema hau gabeko adizkiak ditugu Gesalitzen, Oltzan, Itzarbeibarren eta Eguesibarko hizkeretan.

3.3. Nork-nori-nor sistemaren bada ezaugarri bat Erroibarko testuetan gertatzen dena, alegia, *-ako-*, *-akote-* ezaugarria. Hau dela eta, egun *dako*, *dakote*, *neko* bezalako adizkiak entzuten ahal ditugu. Gaurko hizketan ezaugarri hori gertatzen da, baina, Erroko XIX. mendeko beste testuetan ez dago gisa honetako adibiderik. Horrela, itxura guztien arabera, azken honetan suertatu den berrikuntza baten aurrean gaude gu. Izan ere iragan mendeko azken urteetan ez da horrelakorik gertatu. Gauza bera ikus genezakeen Erron aurkituriko testuetan. Horietan ere (ik. Ibarra 1997: 276) *-io-*, *-iote-* formak nagusitzen dira. Hona aurkituriko adibideak: *acabacen diotenean* (2.2), *zor diogun* (1.7), *obedecitu cio* (1.6), *erran cio* (1.6), *ecarcen diogula* (1.8), *eman cion* (1.7), *memoriara ecarcen diogula* (1.8), *in cion bisita* (1.9), *escacen diotela* (1.8).

Bestaldetik, nork-nork sistemaren adizki bakarra agertu zaigu: *manacen gaitu* (2.3). Jakina denez, egungo hizketan ez da nork-nork adizkirik erabiltzen, *dut*, *tut*, *dute*, *tuzte* eta horiek izan ezik; baina bi mende lehenago oraindik bizirik zeuden.

Azkenik, aipatu behar da “haiei” nori denez, *-ote-* morfema nagusitzen dela, goi-nafarreraz ohikoa denez: *explicatu niote* (2.1), *sucedituco zaioten* (2.1), *guertacen zaiotela* (1.2).

3.4. Eta adizkien morfemekin segituz, zuek izenordainaren morfema *-zie* da 2. testuan: *uste ducie*, *erraten ducie* (2.5), *considera zacie* (1.5), *trabajaraci tucie* (2.6), *icusten tucien* (2.6), *escatuco dituciela* (2.7), *adi zacie* (2.7), *escatuco diciela* (2.6), eta *baldin expaditucie* (2.7). Jakina denez, hau da Erroibarko, Esteribarko, eta goi-nafarrera hegoal-

dekoaren beste lekuetako aditzen ezaugarri argia. Hala ere, 1. testuan ez dugu bukaera hau eriden.

3.5. Aditz partizipioetan, ekialdeko aditzek erabiltzen duten aditz oinaren erabilera nagusitzen da: *admiti ezagula oray* (1.10), *Nola naute ampara deizan bician* (1.10), *adizacie siquiera nola quexa* (2.7), *adi bezate* (2.4).

Aginterazko formetan ere aditz erroa eta subjuntibo adizkia erabiltzen da, egun erabilera hau anitz murriztu bada ere: *Nola naute ampara deizan bician* (1.10).

3.6. Nork aditz sistemaren pluralean *t-* bustigabea dugu: *tuztenengatic* (1.11), *ofreciten tioten oracioac* (1.10). Nork-nori-nor sisteman, ordea, *-it-* dugu: *eman ditigun cuidado guciac* (2.2.), *galdu citioten* (1.4).

3.7. Aditz errejimenari buruz ohar bat egingen dugu. Nor motako laguntzailea aukeratzen du “trabajatu” aditzak: *trabajatu zate* (2.6), *trabajatu zaraten* (2.6), *Jaietan trabajatu direnen contra* (2.7).

3.8. Ahaleran, aditzei ustezko kutsua eta posibilitatea ematen dion *-ke* morfema ohikoa da haran hauetan. Gaur egun iparraldean gordetzen da bereziki: *eta ezuguete esperatu niolat ere Vitoria* (1.2), *Mandazaien oficioarequin bizi direnac dabilaquela* (2.6).

3.9. Aditz sintetikoek dagokienez, zehaztu behar da *eraman* aditzaren forma sintetikoa behin agertzen dela eta *-ra-* artizkirik gabekoa dela, nahiz egungo hizkeran forma sintetiko hauek ez diren ia-ia erabiltzen. Bistan da lehenago ohikoagoak zirela hauek: *Imagina cematte unci gucietan* (1.4).

Joan aditzaren 3. pertsonari dagokion lehen aldia *-n* gabekoa da eta *-i* bukaeraduna: *zueci, haieci peleacera* (1.4). Egun ere horrelakoak dira 3. graduko singular nahiz pluraleko formak: *zazi* da singularrekoa. *Eduki* aditzaren singularreko forma *-i-n* bukatzen da: *señalaturic dauzqui* (2.2).

3.10. Azkenik, erlatibozko morfema den *-(e)n* lotzen zaionean 1. pertsonako den *-t* aditz laguntzaileari *dudala, dudan* eta antzeko formak ematen ditu: *erran dudan bezala* (2.6), *frutu guti ateraco dudala* (2.7), *nic erraten ditudan gauzac* (2.7). Egun, ordea, (dut + n) elkartetak beste gisako bukaerak eman ditu: *in duten, erran dutela...*

4. Sintaxia

4.1. Ekialdeko eta iparraldeko euskalkietan ohikoa denez, osagarri zuzena genitiboan agertzen da *-(z)en* eta *-(z)era* nominalizazioekin: *edo matanza horrible baten iten* (1.4), *capillain bisitacera, cristiaindadeain galceco* (1.1) Erroko testuetan (cf. Ibarra 1997) txandaketa kasuren bat topa zitekeen, eta gaurko hizketan ere joera honi eusten zaio, nahiz erabat sistematikoa ez den.

4.2. *Utzi* aditzarekin goinafarreraz gertatzen den *-tzera* nominalizazioa agertzen da *-(z)en-*en lekuan: *ez bat berere escapatzera uzteco* (1.4), *ilcera uzten cituztela* (1.4).

4.3. Erlatibozko perpausak gaurko Erroibarko, goi-nafarreraz, eta Aezkoako hizkeretan eta idatzitako testuetan bezala, *-en* + izena egituraz osatzen dira: *ainberce aldiz errepicacen dugun Aita gurea* (1.7).

Baina, modu honezaz gain, izenek mugatzailea hartzeko aukera dute, goinafarreraz eta aezkeraz bezala: *eta ematiaiqui Maria Smari obsequio eta tributo zor dioguna obligacen dugu* (1.7), *Cofradiquide asistitu eztezaquetenec capillain bisitacera* (1.8).

Zein baita egitura ere agertzen zaigu: *eta veren armac plantaceco Erromaco Elizain gañean, cein baita Cristiandadeain, eta mundu guciain Capitala edo burua* (1.1); *eta errancio, Ainguiruairi salutacioa, cein baita Ave Maria, izan cetaic guizonain salbaceco principioa vezala* (1.6).

Ceñetan ...bait egitura ere agertzen da: *ceñetan entendimentuac gueiago trabajatu bear baitu* (2.3).

4.5. Kontzesiboak. Esaldi mota hauetan nahiz + aditz partizipioaren egitura jokatu gabea erabiltzen da: *Naiz guc ez merezirik ere* (1.10), *Naiz turcoec sumaturic ere* (1.9), *Naiz infielac etorric ere* (1.9).

4.6. Esaldi kontsekutiboetan *hain...ezi...bait* egitura, goinafarrera osoan nagusitzen dena, gailen da hemen ere.

Ain conceptu vagoa ceucate Turcoec Cristione Armadas eci beñeri expaizute pensacen (1.4); *Ain su losagarria in zute bi aldetaic, eci dembora lucean ilundu baizute.* (1.4); *Aitam-Sandues ainberce indulgencia eta pribilegioequi, eci...* (1.6); *Ain dicha andiaiqui guibelelic ematen, eci Artilleriain que guciac ematen baizue cara, cara.* (1.4), *faltatu ce ain gende guti, eci mundu guciac ezautu baizue claroqui Ceruco asistencia* (1.4); *eta ain firmequi sinistatu zue Maria Amain devocioain efetua izan ceta, eci fundatu vaizue* (1.5). Gaurregun eremu hauetan eginiko azterketan ez da inoiz horrelako egiturarik eriden.

4.7. Denborazko esaldietan *-larik* morfema nagusitzen da besteen aldean: *urbildu cirelaic* (1.4); *egun batez cegolaic* (1.6); *izan cetaic* (1.6); *visitatu zuelaic* (1.7); *joan cizacolaic* (1.8); *cegolaic irritatuic* (1.10); *informatuac izan cirelaic* (1.3).

Halarik ere, *-nean* morfemaz eraikitakoak behin baino gehiagotan agertzen zaizkigu: *asten denean indulgencia bat, Domine fabilia asten denean, mundu ontan vicitu cenean* (1.9), *Obispo Jaunac ematen duenean licencia* (2.4), *errico Apez gaunac icusten duenean* (2.4). Egia da *-larik* hau izaten dela ugariena Erroko gainerako testuetan, baina, honekin txandaketan dudarik gabe.

4.8. Kausazko esaldietan “zergatik” erabiltzen da kasu batzuetan: *cergatic eztugu esperatu veat* (1.10), *cembat aldiz trabajatu zarate cerengatic berceac icustentucien trabajacen* (1.6). *Bait*-ekin osaturikoak ere ugari dira: *cein baita Ave Maria* (1.6), *eci ya consideracen baita salbaceco, cein baita Cristiandadeain, eta mundu guciain Capitala edo burua* (1.1). Hauxe da, dudarik gabe, kausazko esaldiak egiteko gehien erabiltzen den modua gaur egun.

4.9. Esaldi explikatiboetan, *nola..* hasiera dutenak ere badira: *Ainverce dembo artan acostumbraturic veti Turcoac garaicera eta derrotacera Cristioac nola vaicire gueago tropetan* (1.3),

Lexikoa

Lexiko alorrean –nahiz oso aberatsa ez den– eliza eta fedezko gaietz aritzen baitira testu hauetan, nabarmen daitezke inguru honetako item batzuk. Hona batzuk: *estrabile, ezgutiago, Lastailla, guibelelic, andic, alcina, dembo, vizquitartean*. Erdarazko esapide batzuk ere tartekatzen dira, dudarik gabe: *por cierto, antes bien*. Eta zenbaitean, erdarak euskarazko itz jatorra ordezkatzeko du: *trabajatu daitecquen, trabajacea gehiago* (2.4), *necesidade* (2.4), *aborrecientuela* (2.7), *ofendicen* (2.6), *logratu* (2.6), *castigo visibleac* (2.6).

Nabarmendu behar da hilabeteen izenak euskaraz ematen direla, egungo hiztunek erdiak ahantzi badute ere: *Lastailla* (1.2), *Izozilan* (1.8), *Aguztua* (2.5). Badira testu hauetan, nola ez, orain ia-ia desagertu diren hitzak, izena eman dioten lanek ez direlako jada eremu hauetan egiten: *Yguitetan* (igitaiarekin), *Elzietan* (eultzietan) eta *Mendiman* (ardantzeta biltzeko lanetan) (2.5).

Zenbatzaileetan, *bida* eta *bide* erabiltzen dira: *eta ebetan bida Generalain Semeac* (1.4), *guciac reducicen dire bidatara* (2.2). Gaur egun, ordea, ohikoa da *bide* entzutea.

Ondorio gisa eta hitz bitan laburbiltzeko, honako hauek dira Xuarbeko gainerako testuetatik ezberdintzen diren ezaugarriak:

- *zie* morfema agertzen da 2. testuan, Xuarbekotzat jotzen ditugunetan, ordea, ez.
- Erakusleen forma protetikoak.
- Iraganaldiko *n*-ren galera dugu kasu batzuetan.
- *ain* morfema genitibo singularrean eta *-aikin* genitibo pluralean.

Baina, hiru besterik ez dira Erroibar eta Esteribarko ezaugarriak: iraganaldiko *-n*-ren galera, erakusleen forma protetikoak eta *-ain*, *-aikin* morfemak. Gainerako ezaugarriak, gehiago ala gutxiago, goinafarrera osoan betetzen baitira.

Hauetaz landara, badira ezaugarri batzuk *Cum intraret Jesus in Domun* agertzen direnak, eta 1. testuan ez daudenak, esaterako, *dirade* adizkia agertzen da 2. testuan: *berce trabaju bazuc dirade* (2.3), *oficio gueienac diraden bezala* (2.3), *ebec ezirade lizito Jaietan trabajacen badire* (2.3). *Dirade* adizkia, *dire*-rekin txandakatzen da 2. testuan, 1. testuan, ordea ez dago horrelakorik.

Banaketa hau ikusi ondoren, gerta liteke ezaugarri hauek, *-alegia -n* gabeko aldaerak, *gau*, *gori* forma protetikoak eta *-aikin*, *-ain* morfemak – lehenago Ultzamara hedatuak izana, eta honenbestez, testu guztiak hangoak izatea. Baina, ez dugu uste posibilitate hau bidezkoa denik, eta froga bezala ditugu Xuarbeko guk aztertutako testuak, horietan ez da inoiz horrelako ezaugarrikeri ageri, alegia, ez dago *-ain*, *-aikin*, *gau*, *goi* eta *-n*-ren desagertzerik. Gainera, euskaran erakusleek hitz hasieran dararmaten herskari ahostuna, ezaguna denez, Nafarroako Ekialdera hedatzen da eta ez Mendebaldera: Esteribar, Erroibar eta Aezkoa ibarretan bederen bizirik dago egun, eta iraganean Artzibarren, Urraulgoitin eta Longidan ere bai. (ik. Camino 2000: 54).

Honengatik guztiarengatik, testu hauek hemengotzat jotzen ditugu, nahiz eta hasieran genioenez, zehazki ez dakigun nongoak diren.

1. Testua

Et sic in Sion firmatua sum et in civitate sanctificata similiter regnietan, et in Jerusalem potestas mea. Sap 24.

Ain conceptu vagoa ceucate turcoec Cristioen Armadan eci, veñeri ezpaizute pensacen 1. Ala nola egunoro aibaicara errecibicen favore, eta beneficio berriac maria Stmainganic, guisa verean gure eliza Ama sanduca dauca cuidado andia guri manifestaceas guc zor diogun reconocimentua paracentuela ontaco solemnidade verriac; eta festividade evequi pretendicen du animacea, eta aumentacea egun oro fielen devocio tiernoac. Egungo festividadeacain motivoa, edo ocasioa izan ce Cristiandadeac errecibitu duen favore señalatuetaic bat Maria Amain intercesione poderosoain medioz, demvora artan, ceñetan Turcoec orgulloz veteric Cristioen contra egunoro conseguicen cituzten vitoriequi, prometicen zute ezgutiago baicic

apoderacea Europa guciaz, cristiandean galceco, eta veren armac plantaceo Erromaco Elizain gañean, cein baita Cristiandadeain, eta mundu guciain Capitala edo burua.

2. *Egun urte baño zue ya Turcoec zeucatela Cristiandade gucia terrores veteic, Jangoicoac permitcen cituen vitoria continuequi; ya castigaceco Cristioen vecatuae eta ya bisteco ayen ciocean erdi illic cegon fedea. 1521. urtean apoderatu cire Turcoac Belgradoco plazas 1522 Rodaco Isaso costas. 1526 sartu cire Ungrian, iragaci zuteneco Moasco vatalla, apoderatu cire Budaco, eta verce zembait plazas. 1571 urtean paratu zute Isasoan pensa daitequen armadaic numeroso eta formidablana Italia gucias javcececo pensamentuaiqui Turcoec. Arri-tuic Cristoac, consideratu zute, ayen fortuna cegola batalla baten suerte dudosoan. Ce laz-quiz chiquiagocoa Cristioen Armada, Turcoena vaña, eta ezquete esperatu niolat ere Vitoria, vaicic Ceruco asistenciaiqui. Conseguitu zute, vada, Maria amain intercesiones, ceñen protecioaren azpian paratu baizue Armada, edo Tropa gucia Aita Sandu S. Pio V. Cristioec Isasoan iragaci duten batallaic celebren gau izan ce Lastallain zazpigarrena 1571 urtean.*

Ain conceptu vagoa ceucate turcoec Cristioen Armadan eci, veñeri ezpaizute pensacen atrexituco cirela presentacera pelean. Vacequite Turcoec ciertoqui Cristioen uncien numeroa vaña bacequite Cecilia peleacera Maria Sman amparoain azpian, ceñetan, Jangoicoas landa-ra baiceucate paratuic veren confianza gucia; eta argatic guelditu zire arras admiraturic, informatuac izan cirelaic, Cristoen armadac iragaci zuela ya Cefaloniaco Isla. Ain verce dembo artan acostumbraturic veti Turcoac garaicera eta Cristioac nolavaicire gueago trope-tan, eta Uncietan sarri cire moguimentuan beren ustes inguraceco, eta ez bat berere escapatze-ra uzteco. Apenas aguertu ceneco Turcoen armada Cristioen armada manacen zuten bi General principales Du. Juan de Austriac eta Marco Antonio Colona Aita Sanduain Generalac esfuerzo andiqui goraturic boza invocatu zute Maria Amain intercesionea.

Urbildu cirelaic vi Armadac eman zute peleaceco señailea, eta goratu zite vi Generalec Napolesen erreceitu zuten vandera Aita sanduainganic. Apenas descubritu zuteneco Jesu-Cristo Crucificatuain Imagen a bordatuic cegona Aita Sanduain banderan, verla salutatu zue Armada guciac arequin, eta contentu andiaiqui, eta señailea in ondoan oracio iteco, Ofi-ciale eta soldado guciac zelauricatuic adoratu zute Jesucristo Crucificatuain Imagen: ciertoqui gauza admirablea eta tierno a icustea Oficialec eta soldadoac armaturic ya peleaceco Jesu Cristoin onñetan imploracen, edo escacen arren asistencia Infielen garaiceco bere Ama santissimain intercesiones bada onen Imagina cemate unci gucietan. Vizquitartean zueci bi Armadac bata berceaingana urbildus Turcoainac aicea bere alde zuela, eta circunstacia gonec losacen, eta sobresaltacen citue Cristioac. Orduan bada, izuli cire ferbore andiagocoiqui ebec Reyna Soberana gonon gana, ceñen amparoaren azpian baiceci peleacera; eta derrepente aycea izulceaiqui, asi cizaicote ain dicha andiaiqui guibeletic ematen, eci Artilleriain que guciac ematen baizue cara, cara Turcoen Armadain gañera, guciac ezautu zute mudaza derrepete (sic) gau izan cela milagrosoa. Ain su losagarria in zute bi aldetaic, eci dembora lucean ilundu baizute cusun gucia queaiqui. Egon ondoan dembora andian pelean balore andiaiqui bialdetaic, eta casic batre bentajaic gabe, bata berceainganic Cristioec yago confia-tuic Ceruco asistenciain beren balore eta indarrean baño, obserbatu zute Turcoac asicirela flaqueacen, edo Ala? ez ain bortizqui iten, eta zuecila retiratus isaso orta aldera. Redobla-tuic onduan bere confianza eta ardorea gure Generalec ilzute Generala eta apoderatu cire Uncias. Denbora berean manatu ondutic asi cire Turco miserable ayetan estrago, edo matan-za horrible baten iten, beren buruac bate resistenciari gabe ilcera uzten cituztela. Oguei eta

amar milla Turcoec galdu cituzte biciac; in cituzte Cristioec vorz milla prisionero, eta ebetan bida Generalain Semeac; eta jabetu cire egun, eta oguei, eta amar uncis, laueta oguei eta amar vaño galdu citioten edo Isasora botatuz, edo errez; Bitoria gau cela medio libertadean jarri cire oguei mila Cristio eta Cristioen Armadan faltatu ce ain gende guti, eci mundu guic ezautu baizue claroqui Ceruco asistencia, eta celebratu zue milagro admirablea gau.

5. *Aita Sandu S. Pio vorzgarrenac izanzue revelacioa vitoria ontaz Turcoac derrotatuac izan ciren instante verean; eta ain firmequi sinistatu zue Maria Amain devocioain efektua izan cela, eci fundatu vaizue egungo festividade au Ama Virgina Vitoriacoin nombreaki ala erraten digu Erromaco Martirilogoac iz euequi: Lastallain zazpigarrenean verean da Ama Virgina Vitoriacoin Conmemoracioa, S. Pio vorzgarrenac fundatua, esquerrac emateco egun ortan Cristioec Turcoen contra alcanzatu zuten vitoria gloriosoas Isasoan Maria Amain amparoa cela medio. Empeñaceco ovequiago AmaSma onen protegiementu poderosoa Cristioen favore, valiatu ce Aita Sandu gure Errosario Sanduain devocioas, ain agradabilea Reyna Soberana gonendaco eta angatic (sic) manatu zuen Ama Virgina Vitoriacoin festa izan ceylea denhora berean Ama Virgina Errosariocoain solemnidadea.*

6. *Errosarioa errezazeco modu admirable au Sto. Domingot, ceren aparecitu cizaicon Maria Sta. predicacen cegon denboran Albigensen heregien contra. Egun batez cegoaic oracio feruoroso batean aparecitu cizaicon Ama misericordian gau, eta erran cio, Ainguiruairi salutacioa, cein baita Ave Maria, izan celaic guizonain salbaceco principioa vezala, eta motibo principala, eta argatic predicaceaiqui Errosarioain debocioa experimentatuco zutela milagro andiac bere trabajuetan eta bitoria andiac heregen contra izaten cituen disputetan. Obedecitu cio Sto. Domingot eta ala andic alcina predicaceaiqui Jangoicoaren Ama Santissima onen grandeza eta excelencia, eta Errosario sanduain Merito eta utilidadeac, verla experimentatu zuen devocio admirable gonon frutua, eta proguric andiena izan ce azotatua, coronatua eta crucificatua egun milla herege converticea eta aniz becatari beren bicioac eta costumbre gaistoac uciric penitencia eguiazcora ecarcea. Au izan ce Errosario sandu onen, eta cofradia onen principioa, ain celebratua mundu gucian, eta ain autorizatua Aita Sandues ainverce indulgencia eta privilegioequi, eci ya consideracen baita salbaceco señale dichosotaco Ama Virgina Errosarioco Cofradia sandu ontan listatuic edo santuic egotea.*

7. *Ciertoqui cen devocio aurqui daiteque agradabileagoric Jangoicoaindaco, eta cen oracio eficazagoric Maria St. main protegiementua meregiceco. Errosarioan ainberce aldiz errepeticen dugun Aita gurea eracusi cigu Jesucristoc verac Abe Maria componen da Ainguru Gabrieleac, eta Sta. Isabelec pronunciatu cituen izes, Amagirginac (Sic) visítatu zuelaic. Errosario osoa da amaborz Decenario eta amavorz Pater noster; eta guc errezacen duguna solam.te da irugarren zatia. Leuicico vorz Decenarioac dire Misterio gozosoenac, bigarrenac Dolorosoenac, eta irugarren vorzac Misterio gloriosoenac. Misterio gozosoac dire consideracea Aingiriac Maria Santissimay eman cion Embajada, Ama Birginain bisitacioa Jesucristoain Nacimentua, Niño Jesus galdua, eta topatua Temploan Datorren urtean. Misterio dolorosoac dire consideracea nola Jesucristo egon cen Jetsemanico baracean eta odolesco izerditan, nola izacen azotatua, coronatua eta crucificatua calvarioco oyanean. Misterio gloriosoac dire consideracea nola Jesucristo iltu irugarren egunean resucitatu cen eta aparecitu cen bere Ama Stmari, arren Ceruetara igatea, espiritu Santi Jauna mundu ontara etorcea, eta Maria Stmain gloria andiaiqui Ceruetara animaiqui, eta Corpuzaiqui igatea. Misterio evec consideraceaiqui, Errosario da gure Eliza Ama Sanduac dituen oracioetaic sanduenaic*

bat, ceñetan bioza joateaiqui acondeizequi ematen diogu Jangoico Ohnipotenteari Religione-
ain culto perfetu bat, eta emateaiqui Maria Smari obsequio eta tributo zor dioguna obligacen
dugu, bere carguan daizquien gracia eta tesoro epirituale guciac bere sierbo fielen galera isur-
cera edo votacera.

8. Da gauza ciertoa ezela gauza agradablegoric Maria Santissimaindaco Ainguiruac
eman cion embajada vaño, joan cizacolaic noticia ematera arrec izan veaz zuela Jangoicoaren
Ama; eta argatic repeticen dugun aldioro Ave Maria exercitacen dugu Ainguiruain emplegua,
eta embajada; eta dudaric eztauen gauza da, memoriara ecarcen diogula orduan errecebitu zuen
honra compara eztaitequen ura. Salutacen dugun aldioro Abe Mariariqui. Alano de Rupe Bien-
aventuratuac dio, errosarioa dela oracio gucienc erreyna. Regina Omnium orationum. Erro-
sarioan gauza guciac dire misteriosoac, aun egun eta berrogei eta amar Abe Marien numeroa,
bada argatic deicen da Ama birginain Salterioa. Ezta Ama Birginain Cofradiaic ain celebra-
tuic nola au, probechosoagoic Cristo fielendaco, ez etare autorizatua goric Eliza Ama san-
duainganic. Amabi edo Amiru Aita sanduec indulgencia gucienc depositarioac diren bezala, bete
dute abundancia andiaiqui Cofradiau indulgencia particularequi edo plenariequi.

S. Pio V. vere Bula Erroman despachatu zueneain (sic) Urriain 17. 1569 urtean conce-
dicen du Indulgencia plenaria bat cofradia ontan sarcen diren Cristiofice guciei; sarcen diren
egunetan confesatu ondoan confesacen badire cofradia sandu paratuic dagon elizan, eta erre-
zacen vaute errosarioain parte bat escacen diotela dembora herean Jangoico ohnipotenteari
eliza Ama sanduain haqueaz eta gure fedean aumentuaz. Clemente VII concedicen du bere
indulgencia plenaria bat cofradia sandu ontan sarcen direnei confesaceaiqui, eta comece-
aiqui edocin Elizetan. Bula Salvatoris. Ixozitan 13, 1591 urtean. Aita sandu onec verorrec
concedicen du bere Bula, De salute gregis asten denean verce indulgencia plenaria bat cofra-
dia ontan sarcen diren guciei, eta ala Cofradia Sandu ontan sarcen denac, sarcen den egu-
nean iragazi dezaque iru indulgencia plenaria. Hen lenbico igandetan confesaceaiqui, eta
comecazeaiqui, eta Ama Birgina Errosarioain Capilla bisitaceaiqui; eta an eliza Ama San-
duain finez otoiz iteaiqui concedicen du Gregorio XIII indulgencia plenaria bat. Bula Pasto-
ris Eterna. Cofradiaquide asistitu eztezaquetenec capillain bisitacera, proposituiai qui biajan-
tec, eta cerbizuan daudener amaborz Decenarioco Errosario bat iragazten dute Indulgencia
plenaria bat Sixto V. conceditua bere Bula Duminefabilia asten denean. Orbat iragazten dire
Ama Birginain festibidaderan confesaceaiqui; eta comeceaiqui aniz indulgencia plenaria
eta particulare, eta bere aniz errosarioa eta procesioan asistecaiqui, ceñen Bulac ezpaitu
citacen ez molestaceagatic oyen atencioa, eta indulgencia evec aplica daizque Purgatorioco
animen faboretan, Benedicto XIII declaraturic daucan bezala Urriain 22, 1722 urtean.

9. Ceren vada dagon Cofradia sandu gau ala privilegiatuic, indulgenciequi eta gracie-
qui, erregeuac verac apresuratu dire cofradia ontan sarcera, ezta ciudadeic, villaic eta casic
erric cofradia sanduan eztauenic. Eta argatic Denvora gucienc experimentatu dute cristioec
Maria Smain amparoa, eta nola ucico dute experimentaceco, izanes gueros maria Smain
poderea ain andia. Et sic in Sion firmata sum et in Civitate sanctificta similiter, et in Jerusa-
lem potestoy mea. Maria Smac izan bazue ainverce podore vere seme santissimoaiqui aun
mundu ontan vicitu cenean; bada adelantaci zio bere milagroei principioa emateco destina-
tuic zeucan dembora solamente representazeaiqui falta cena Canaveaco vodetan. Solam te in
cion visita vacarraiqui vere lengusia Sta. Isabeli consegucen bazuen S.J. Bautista santifica-
tuic gueldicea, aun jayo vaño len, bere bisitaiqui beidecioz betecen duela familia sandu ura

gucia, oray arren poderea Ceruan izanen da chiquiagocoa? ez por cierto. Antes bien Jangoicoaren Amain podore onec icarazten du Infernu gucia: cer conslua Cristio fiel guciendaco, jaquitea maria Smainen bayetan dutela Ama bat maitacen tuena ternurairiqui; protegizale poderosa bat interesacen dena ayen necesidad gucietan, bitarteco bat dena ayen consluic andiena, eta Jesucristoz landara, ayen esperanza gucia. Cenbat aldiz eztu experimentatu gure Eliza Ama Sanduac maria Smainen asistencia bere trabajuetan eta aflicionetan. Naiz Infielac etorric ere urbilduaz bezala Cristioen galera, naiz Turcoec sumatuic ere bere indar guciac inazteco Cristiandade gucia, asqui da gure Eliza Ama sanduac recurri dezan Jangoicoaren Amaingana desiteco, zaticaceco aparatu guciac. Cenbat aldiz eztire sosegatu izan eder onen bisitairiqui, eta presenciariqui tempestadeac, Aiceac eta goibelac, eta ontaz eraunsiac.

10. *Cer conslua ezta izanen Cofradia sandu ontan santuic aurquicen direnendaco jaquitea, erioceco orduan lance terrible artan, ceñetaic seguicen vaita, edo secula gucio descansua, edo trabajua, ainberce milium maria Smain devotoetaic daudela escacen suplicaren, reclamacione favore andiariqui gutaz arren asistencia eta misericordia. Ez solam.te erioceco orduan logracen tute Ama Virginia Errosariocoin Cofradiquidec Caridadeain oficio exec, logracen tuzte mundu ontaco trabaju gucietan, aflicionetan, eta desgracietan. Ezta Cofradia sandu gonon pribilegioric, eta probechuric chiquietan cofradiquidec elcarren ertean duten, naut erran, oracioetan obra onetan duten participacioa, edo unioea. Da prodigiosa maria Smain Debotoen numeroa, cumpliren duena ainberceco puntualidadeairiqui, nola ferboreairiqui, debocio sandu gau, errezaeren dutela egunoro maria Smain errosarioa. Cer conslua ezta listatuic daudenendaco cofradia ontan, parte izatea cofradiquiden oracioetan. jaquitea, egunoro, ordu oro eta mementuoro dagola Maria Smain Sierbo debotoetaic numero andi bat, afectu andiariqui suplicacen, admitti ezagula oray, eta gure erioceco orduan: *Nunc, et in hora montis nostru.* Naiz guc ez mereziric ere aituaic izatea, nola ucatuco da Ama misericordiosa gau ainberce deboto piadosoen suspiro, clamore, eta ayetara. Aman justo asqui bacire Jangoicoain ira aplacazeco, cego-laic irritatuic, edo asarratuic ain justicia andiariqui Pentapolisco vorz ciudade andiayen contra, cergatic eztu esperatu ce ar aituco dituela, ainberce anima justoeic, eta sanduec egunoro gure vecatore miserablengatic ofreciten tioten oracioac. O Jaun soberanoa, cembat galcen beren bici gucia pasacen duten oyec sartu gabetari Cofradia Sandu ontan, pubacen tuztela bere flojeza culpablequi indulgencia, eta socurru espiritualetaic beren arimac. Nola naute ampara deizan bician, eta eriocean Ama misericordiasco gonec honratu eta respetatu vearrean Cofradietan Santus, Errosario sandua erreztatu ilain lemicico igandetan, Ama santissima onequi iten dire procesiotara asistituz, ezpaute berceic iten lancebetan acenduic biciea baicic Jangoicoa ofendicea eta ultrajacea. Nola nay izul deizan guizonac bere beguic eztu ce berceic topatuco baicic becatua, eta maldadea. Erran zanzazu, bercela, becatari aicen zaudena cer berceic izan da oray artio zure bici gucia, baic (sic) becatuen catea bat, bicioen estrabile bat eta Jangoicoain desobediencia continu bat? Norequi vicitu zara oray artio baicic munduariqui, Demonioairiqui eta araguiariqui eta cere pasionequi. Eztuzuz ebec cerbizatu, eta adoratu?. ongui asqui publicacen dute zure beguien beirace infame oyec.*

Zure pensamentuen torpeza, edo lizunquerier, zure accionen desonestidadea. Ongui asqui publicacen dute zure maldicio infamec, zure murmuracio perjudiciale goyec, zure soberbia, vanidade eta escandaloe? ..

11. *Gauza eecequi nola nai dute alcanzatu Maria Smain amparoa, lagunza, eta asistencia. nai vadute, bada, nere fiel maiteac, alcanzatu onen lagunza, vicioac eta vecatuac bai-*

cic, izan gaitecen obedienteac Jangoicoain legue sandura arzagun oraydanic. Maria Smain devocio eta orrequin conseguituco digu Reyna Soberana gonec confesio on baten, eta erioce on baten iteco gracia, eta guero Ceruco Descansua: quam mihi, et vobis cupio.

Alista veitez, listatuic eztaidenac cofradia sandu ontan ez ainberce interesaingatic nola indulgenciencia (sic) bician, eta erioceco orduan iragazten tuztenengatic.

Zuc ematen duzu exemplo gaisto orrec, jayac ez guardatuz, say arrasetan ez veiar den garayan erretiratuz.

Bibliografia

- CAMINO 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernu, Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
- CAMINO 2000, *Goñerriko hizkera (I) (II)*, 1-108, 1-88, artikuluko argitaragabea, ASJU-n argitaratzeko pestatua.
- IBARRA, O.; 1992, "Ultzameraz idatzitako bi dotrinaren edizioa eta azterketa", *ASJU* XXVI-3, 915-977.
- ; 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernu, Iruñea.
- ; 1997, "Erroko testu argitaragabe bat eta beste batzuen iruzkina", *FLV* 75, 265-282.
- ; 1999, "Xuarben (Ultzaman) aurkitutako sermoiak", *Huarte de San Juan* 4, 77-99.
- MITXELENA K.; 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Donostia, Auñamendi, Berrarg. *SHLV*: 1-73.
- ONDARRA, F.; "Juan Martin de Ibero (1729-1783), Izuko parrokoaren testuak (I)", *ASJU* 1996-2, 645-703.
- SATRUSTEGUI, J.M.; 1995, "Ultzamako euskal testu argitaragabeak", *FLV* 70, 525-539.
- ZUAZO K.; 1998, *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*. Eusko Lege Biltzarra, Euskal Azterlan bilduma.

RESUMEN

Este artículo tiene como objeto sacar a la luz varios sermones recogidos en la parroquia de Xuarbe (Ultzama). En el número anterior se analizaron varios, y en el presente examinamos los restantes, los cuales presentan características semejantes al euskera de Erroibar y Esteribar aunque no sabemos con exactitud quién es su autor y a qué lugar pertenecen. En este artículo se analizan sus características lingüísticas y la evolución desde el punto de vista diacrónico, ya que han transcurrido casi dos siglos desde que fueron escritos.

LABURPENA

Artikulu honen helburua da Xuarben (Ultzaman) aurkitutako sermoi batzuen azterketa egitea. Aurreko atalean aztertu genituen batzuk eta hona bes-

teak hemen. Aztergai ditugun testu hauek Erroibar ala Esteribar inguruko ezaugarriak erakusten dituzte, zehazki nongoak diren ez dakigun arren. Honenbestez, artikulua honetan hizkuntzaren ezaugarriak eta beraien bilakabidea diakroniaren ikuspuntutik aztertzen dira; izan ere, ia bi mende pasatu dira argitaratu zirenetik.